

Mututasuna

Sekula itzuliko ez diren garaien nostalgiak baino, inoiz iritsiko ez dugun etorkizunaren minak gaitu mututzen.

Ez gara gehiago jende, populu, komunitate. Orain norbanako gara, gizabanako, indibiduo, herritar. Plazak ahitu egin dira; ez dago lekurik, ez gatazkarentzat eta ez adostasunarentzat, nork bere erlijioa, nork bere jainkoa: norbera. Inkestetan parte har dezakegu, gure iritzia eman sarean, iruzkinak utzi han eta hemen, estatistikak gizentzeko ondo dago; audientzia gara, eta eredu horrekin egin nahi da kultura ere.

Audientzia gara: kontsumitzaile izaera beste loturarik gabe, elkartasunik gabe, kapitalak behar duen modukoak gara azkenean. Geure onena ematen diogu lanari, geure lagunak, geure garunak, geure denbora ematen diogu. Eta aisia ere produktiboa da: audientzia gara, egunkariak irakurtzen ditugu, bideoak ikusi sarean, zinera joan, telebistari begira egon. Horra paradoxa polita: lanik gabe dagoen jendea beti ari da lanean. Edo lan bila. Alderai gabiltza, sustriak sateliteetan ditugu, eta azpian lurrik ez, edozein unetan amilduko garen izua baino ez. Bestelako ereduak ditugu ments.

Baina, non jarri itzaropena? Estatuaren dimisioa erabatekoa da gaur, diru publikoarekin ordaindu ditugu zor pribatuak. Eta erakunde publikoen ahalmena eskasa da kapitalaren aldean. Nora ezean dabilta agintariak, hurrengo hauteskundeak helburu bakar. Eta nora ezean dabilta haien meneko egiturak ere (haien meneko direlako). Eta mututasuna gailendu da. Isilik geratzen denak badu hitz egitea. Mutu geratzen denak, hitz egin dezake?

Mutismo

Lo que nos hace enmudecer, más que la nostalgia de tiempos que no volverán, es la añoranza de un futuro que nunca alcanzaremos.

Ya no somos gente, pueblo, comunidad. Ahora somos individualidades, particulares, individuos, ciudadanos. Las plazas se han acabado; no hay lugar para el conflicto ni para la conformidad, cada cual tiene su religión, tiene su dios: él mismo. Podemos participar en encuestas, dar nuestra opinión en la red, dejar comentarios por aquí y por allá, no está mal para engordar las estadísticas; somos audiencia, y se pretende hacer cultura con ese mismo modelo.

Somos audiencia: al final somos personalidades consumidoras sin otro vínculo, sin solidaridad, tal como necesita el capital que seamos. Damos a nuestro trabajo lo mejor de nosotros mismos, le damos nuestros amigos, nuestros cerebros, nuestro tiempo. Y también el ocio es productivo: somos audiencia, leemos periódicos, vemos vídeos en la red, vamos al cine, nos ponemos delante del televisor. He ahí una hermosa paradoja: la gente que está en el desempleo siempre está trabajando. O buscando trabajo. Deambulamos errantes, tenemos las raíces en los satélites y no hay tierra bajo nosotros, sólo el pavor a precipitarnos en cualquier momento. Carecemos de otros modelos.

Pero ¿dónde poner las esperanzas? Hoy en día la dimisión del estado es total, hemos pagado las deudas privadas con dinero público. Y la capacidad de las instituciones públicas es escasa comparada con el capital. Las autoridades caminan sin rumbo, con el único objetivo de las siguientes elecciones. Y también caminan sin rumbo sus estructuras subordinadas (porque son subordinadas suyas). Y se ha impuesto el mutismo. Quien calla tiene capacidad de hablar. Pero quien se queda mudo ¿puede hablar?